

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Eguna: 2015-02-19. Lekua: Santa Klararen Jauregia. Ordua: 17:00 – 18:30.

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Gizatiar: Marisa Pedrero

Talde Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

ELA: Elvira Lemona

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Ez dira bertaratu:**

Getxo Enpresa

Mujeres con Voz

Roda

Udal Talde Sozialista

**Aztergai-zerrenda**

- Aurreko agiria onartzea
- Martxoaren 8rako proposamenak
- III. Berdintasun Planeko eta 2014ko lan planeko ekintzei jarraipena egitea
  
- Saharar emakumeei laguntzeko kanpainaren gaineko informazioa
- Galderak eta eskaerak

## **Aurreko agiria onartzea**

Aurreko agiria onartu da, aldaketarik egin gabe.

## **Martxoaren 8rako proposamenak**

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du aukeratutako gaia hezkidetzarena dela. Berdintasun teknikariak azaldu du nola doan jarduerak antolatzea.

### Ipuin-kontalaria

Azaldu du erabaki egin behar dela ipuin-kontalaria euskaraz edo gaztelaniaz arituko den, ipuin-kontalariak aholkatu baitute ez egiteko Kontseiluak egin zuen aurreko bileran proposatu zena, ele bitan egitea, hain zuzen.

Bilgune Feministak uste du garrantzitsua dela neska-mutikoek euskara ikastetxeetatik kanpo bizitzea, euskara larruazaletik sartzeara eta ez bakarrik burulanekin lotzea.

Talde Popularrak proposatu du euskaraz egitea, udalerriko ia neska-mutiko guztiek hitz egiten edo ulertzen baitute.

Talde guztiak ados daudenez, euskaraz egitea erabaki da.

### Mahai-ingurua

Berdintasun teknikariak jakinarazi du Marian Moreno hezkidetzan adituak konpromisoa hartua zuela hitzaldia egiteko baina azkenean, familia kontuak direla-eta, ezin izango duela parte hartu eta Lasarte-Usurbilgo institutuko irakasle bat gomendatu duela bera ordezkatzeko.

Getxon, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren hezkidetzaren proiektuan sartu diren hiru ikastetxeak gonbidatu dira: Gobela, Geroa eta San Nikolas. Planteatu zaie azaltzeko zertan datzan aurkeztu duten proiektua, garapenaren zein fasetan edo unetan dauden, eta zein diren aurkitu dituzten erronkak eta zailtasunak, bereziki, eskola komunitate osoari, ez bakarrik irakasleei, parte harrarazteko.

### Bisita Guggenheimera

Berdintasun teknikariak esan du Niki de Saint Phalle artistaren erakusketara bisita gidatua egiteko asmoa zuela, baina ez zegoela ziur antolatu edo ez. Talde guztien iritziz, proposamen interesgarria da, eta horregatik proposatu dute Martxoaren 8rako jardueren artean sartzeko.

### Elkarteak biltzeko kale-espazio ekintza

Hilaren 8rako San Nikolas plazan antolatzen ari diren ekintza nola doan jakinarazi du Bilgune Feministak. Landuko den gaia zainketena izango da, eta azkenean world café bat prestatzea baztertu dute. Kaleko ekintza bat egingo dute –elkarteek bat egiteko espazio gisa planteatzen dute–, manifestazio-kalejira bat eta txokolatetea.

Ekintza horiek egin ahal izateko baimenei dagokienez, Bilgune Feministak galdetu du ea Berdintasun Zerbitzuak eskatu duen eremu publikoa erabiltzeko baimena, aurreko bileran esan zen moduan. Berdintasun zinegotziak erantzun du berak bere burua eskaini zuela world café ekintza egiteko Zabalako eskolaren eskaera

kudeatzeko, baina orain planteatzen ari diren ekintza desberdina dela eta plaza erabiltzeko baimena eskatu behar duela erabili behar duen elkarteak edo elkarteek. Gehitu du plaza erabiltzeko eskaera kale-plaza publikoek arduratzen den arloari, Babes Zibileko arloari, egin behar zaiola eta kalejira egiteko baimena, berriz, Ertzaintzari eskatu behar zaiola.

Bilgune Feministak esan du ez dutela baztertu zainketei buruzko world café jarduera egitea, baizik eta aurrerago egitea planteatzen ari direla. Izan ere, ez omen dute planteatu nahi izan lortzen zailegia izango zen helburu bat. Berdintasun teknikariak gogorarazi du Martxoaren 8rako hezkidetzaren gaia aukeratzean hitzartu zela apirilaren amaierarako utziko zela zainketei buruzko jarduerak antolatzea eta haietako bat izan litekeela world café jarduera.

Berdintasun zinegotziak galdetu dio Bilgune Feministari ea eman dien gainerako elkartei hilaren 8ko proposamenaren berri. Eskuz-Eskuk baietz erantzun du, deialdia egiteko eta informazioa emateko mezuak jaso dituztela. Gizatiarreko ordezkariak esan du beste kide bat egon zela bileran eta ezin izan dela berarekin egon.

ELAko ordezkariak galdetu du ea irekita dagoen herritarrentzat, eta Bilgune Feministak baietz erantzun dio. Gogora ekarri du bi helburu ezarri dituztela: batetik, elkarteek bat egiteko espazio ba izatea, elkar ezagutzen joan ahal izateko; eta bestetik, gizarteak ezagutzea emakumeen egoera, zainketei, gertatzen diren eskasia edo prekaritate egoerei eta abarri dagokienez.

Eskuz-Eskuk esan du elkartean aipatuta zutela world café bat egingo zela eta zenbait emakumek interesa zutela, baina azalduko dietela aurrerago egingo dela.

Bilgune Feministak esan du kalejirarako deia, oraingoz, haiek egin dutela baina beste talde batzuk batzea espero dutela.<sup>1</sup>

### Beste jarduera batzuk

Gizatiarrek jakinarazi du martxoaren 12rako "La mujer sola" bakarrizketa antolatu duela. Gainera, egiteko dauka zainketei buruzko hitzaldi bat, atzeratu behar izan dena.

Bere aldetik, Mujeres con Voz elkarteak, Bilgune Feministak eta Boliviako emakume talde batek martxoaren 1erako, Andres Isasi kalean, informazio hitzaldi bat antolatu dute, emakume kurduen egoerari buruz.

### Erakunde adierazpena

Talde Popularrak galdetu du ea Martxoaren 8an erakunde adierazpenik egiten den. Berdintasun zinegotziak erantzun dio, Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunean ez bezala, Martxoaren 8an ez Emakundek ez Berdinsareak ez

---

<sup>1</sup> Azkenean, eguneko jarduera guztiak Bilgune Feminista, Mujeres con Voz, Haizak eta Ernai elkarteek antolatu dituzte.

dutela adierazpen eredu bat aurkezten. Horrenbestez, egin beharrekoa alderdi politikoen arabera izango da.

### **III. Berdintasun Planeko eta 2014ko lan planeko ekintzei jarraipena egitea**

Berdintasun zinegotziak adierazi du, urtero bezala, taldeei bi dokumentu bidali zaizkiela. Alde batetik, 2014ari dagozkion Berdintasun Planeko ekintzen jarraipena; eta bestetik, Berdintasun Zerbitzuaren lan planaren jarraipena, hori ere 2014ari dagokiona.

Gogora ekarri du beste urte batzuetan berrikusi egin direla egokitzat jotzen ez direnak, eta bai egin ez direnak ere. Ikusirik ez dutela talde guztiek irakurri dokumentua, hurrengo bileran berrikustea erabaki da.

Bilduk esan du langile politikoen prestakuntzari buruzko ekintzan adierazlea gaizki dagoela, jasota dauden pertsonak baino gehiago izan baitziren. Bestalde, eskatu du sartzeko ez direla talde bakoitzeko pertsona guztiak joan eta, zenbait talderen kasuan, ez direla joan emandako bi prestakuntza saioetako bakar batera ere.

Berdintasun Zerbitzuaren lan planari dagokionez, zinegotziak azaldu du ez direla gauzatu ekintzetako bi: *Generoaren ikuspegia kirol kudeaketan* prestakuntza ikastaroa 2015eko urtarrilera atzeratu da; eta bigarrena dela-eta, Nagusien Etxeak ez du interesik ikusi *Norbere zaintza eta etxea antolatzea* tailerrean.

Berdintasun teknikariak gehitu du generoari eta kirolari buruzko prestakuntza emanda dagoela eta, bere ustez, interesgarria litzatekeela gizonentzako tailerraren gaiari berriro heltzea, baina ez ezinbestean Nagusien Etxeko bazkideak gogoan izanda.

### **Saharar emakumeei laguntzeko kanpainaren gaineko informazioa**

Berdintasun teknikariak jakinarazi du Estatuan kanpaina bat egiten ari direla saharar emakumeei laguntzeko eta Lotsaren Harresiaren kontra. Zehazki, minak dituen lurralde bat da, eta Mendebaldeko Sahara bitan zatitzen du. Saharar Emakumeen Batasun Nazionalaren laguntzarako Euskal Sarearen bidez –Getxoko Udalak parte hartzen du sare horretan– kanpaina horri sostengua ematen ari zaio. Elkartasun mezuak bidali nahi zaizkie minak kentzeko taldea eratzen duten emakumeei, hainbat urte baitira lanean ari direla Mendebaldeko Sahara askeko inguruan minak kentzeko.

Proposatu da oihal zatiak josten parte hartzea. Oihal zati horiek mezuak izango dituzte, eta, Estatuko gainerako mezuekin batera, tapiz handi bat osatuko dute. Apirilean Saharar Emakumeen Batasun Nazionalaren VII. Kongresua egingo dute, Tindufeko kanpalekuetan, eta tapiza eramango da harresi horren aurkako martxara.

Gizatiar elkartearen ordezkariak adierazi du berak prestatuko dituela mezuak eta horren berri emango duela elkartearen.

Talde Popularreko ordezkariak proposatu du kanpaina bat egitea, metalak erosteko dirua biltzeko eta, hartara, minak bilatzean emakumeei laguntzeko.

### **Galderak eta eskaerak**

- Bilduk esan du azken urtean zenbait alditan egin diotela eskaera hau: haurtzaindegi zerbitzua jartzea Udalak antolatutako ekitaldi guztietan, eta, hartara,

emakumeen parte-hartze politikoa bultzatzea. Mozio bat erregistratu dute Bilduren izenean, baina hori egin aurretik informazioa emateko mezu bat bidali diete elkarte guztiei. Erregistratzeko eta hurrengo osoko bilkurara iristeko azken eguna zen, baina taldeek Bilduren mozioaren alde egin nahi badute, Bildu prest dago mozioa baztertzeko, hurrengo osoko bilkuran baterako mozio bat aurkeztu ahal izateko.

ELAk galdetu du ea Kontseilu gisa mozio bat aurkeztu daitekeen. Bilduk erantzun dio ezetz, baina talde politikoek izenpetu dezaketela, haiek baitira osoko bilkuran aurkeztu dezaketanak.

Berdintasun zinegotziak gehitu du, erregelamenduaren arabera, Kontseilua aholkularitza emateko organoa dela eta ezin duela jarrerarik hartu inolako gaitan.

Bilduk azaldu du bai bere taldeak bai PSE alderdiak ere egoki ikusten dutela Kontseilua eratzen duten elkarten izenean aurkeztea, eta errepikatu du, taldeak prest baleude laguntza emateko, Bilduk baztertu egingo lukeela mozioa, alderdi guztiak agertzeko.

Berdintasun zinegotziak erantzun du banako moduan adierazi ahal izango dela sostengua, baina ez Kontseiluko talde moduan. Beste alde batetik, adierazi du ezustekoa hartu duela PSE alderdiko ordezkariak honen berri bazuela entzutean, kontuan izanda emakumeen elkarreei baino ez zietela bidali mezua.

Eskuz-Eskuko ordezkariak esan du berak uste zuela Kontseilu moduan aurkeztu zitzaketela proposamenak. Gizatiar elkartearen ordezkariari dagokionez, bera mozioaren alde dago, baina elkartean hitz egin behar dute horren gainean.

Berdintasun zinegotziak adierazi du, Kontseilutik kanpo gelditzen den gaia denez eta EAJ ez denez gonbidatu, proposamena egin behar duten alderdiak bere aldetik elkartzeko. Bilduk erantzun dio, hain zuzen ere, une honetan ari direla talde guztiak gonbidatzen bat egitera. Berdintasun zinegotziak gaineratu du planteatzen ari dena ez dela ez galdera ez eta eskaera ere eta, horrenbestez, ezin izango litzatekeela gai moduan sartu Kontseiluaren aztergai-zerrendan.

Eskuz-Eskuko ordezkariak uste du beraiek ez dutela bakarrik Bildurekin elkartu behar gai honi buruz egiteko, eurei ere interesgarria iruditu lekiekeela alderdi guztiek aurkeztea.

- Zenbait elkareren izenean aurkeztuko duen beste mozio baten berri eman du Bilduk. Gaia sortu da koalizioak babesgabatasuneko egoeratzat jotzen duen arazo baten ondorioz. Atzerritar emakume batekin lotutako gertakariak kontatu ditu ondoren (barneko langile ari zen etxetik kanporatu egin zuten eta ostatu hartzeko baliabidea behar zuen).

EAJko ordezkariak, era berean Gizarte Zerbitzuen zinegotzi denak, uste du egoera ez dela kontatu dena bezalakoa, baina gehitu du berak ere ez duela ondo ezagutzen kasua. Ondo ezagutzen duena gizarte-langilea da.

Aztergai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da.

**Hurrengo bilera apirilaren 16an izango da, osteguna, 17:00etan, SANTA KLARAN.**